



Lan poltsa: Berbaizu Euskara Elkartea 2021-2022

Arloa: Euskalgintza / Aisialdia

Eskaintzaren deskribapena:

Berbaizu Euskara Elkartek hainbat zerbitzu eskaintzen ditu arlo desberdinetan eta lan poltsa bat zabaldu nahi du, esku artean dituen proiektuak aurrera egiteko eta erronka berriei aurre egin ahal izateko.

Lan poltsa esparruak: Hiru lan poltsa desberdin zabalduko ditugu, esparruka bananduko direnak. Aukera egongo da batean, bitan edo guztietan izena emateko.

- **Aisialdia:** Eskolaz kanpoko ekintzak dinamizatzea, prestatzea eta aurrera ateratzea. Langileak urritik maiatzera arte ordukako lanaldia izango luke eta Deustuko eskoletan egingo luke lan.

Baldintza espezifikoak: Aisialdian esperientzia izatea (titulua izatea aintzat hartuko da), sexu-delituen ziurtagiria eta 15:00-18:00 ordu tartean denbora prestutasuna.

- **Formazioak:** Euskararen erabilerarako, euskararekiko jarreraren sentsibilizaziorako eta hezitzaileentzako formazioak emateko esparru honetarako 2-3 pertsonako lan poltsa.

Baldintza espezifikoak: Kotxea izatea eta gida baimena (aintzat hartuko da).

- **Kudeaketa:** Berbaizu Euskara Elkarteko bulego lanetarako langilea. Jardunen artean leudeke: elkartearen kudeaketa, bazkideen arreta zerbitzua, dirulaguntzen eskaerak, etab. Langileak jardunaldi-partzialeko lanaldia izango luke eta Zuzendaritza Batzordearekin elkarlanean gauzatuko litzateke.

Baldintza espezifikoak: Informatikako oinarrizko programak erabiltzeko gaitasuna, kontuak eta datu baseak egiteko gaitasuna, zailtasunak ebazteko gaitasuna, koordinazio eta talde lanerako trebetasuna.

Baldintzak orokorrak:

- Euskara maila ona izatea, ahoz zein idatziz.
- Euskalgintza ezagutzea.
- Jendaurrean aritzeko eta harremanetarako gaitasuna.
- Komunikatzeko gaitasuna.
- Talde- dinamizazio eta antolaketarako gaitasuna.
- Hileko azken asteartean, arratsaldeko 18:00etan, biltzeko denbora.

Aintzat hartuko da:

- Berbaizuko bazkidea izatea.
- Deustualdea ezagutzea.
- Emakumea eta gaztea izatea.
- Erabakiak hartzeko gaitasuna edukitzea.
- Berrikuntzarako eta sormenerako gaitasuna edukitzea.

Interesa izanez gero, **bidali zure curriculum**
berbaizu@euskalnet.net helbidera, **urriak 8a baino lehen** eta zehaztu **zein**
esparrutan duzun interesa!